



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@oinati.net
Telefona: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

ALKATE DEKRETUA

Mikel Biain Berraondo, Oñatiko Alkatea naizenez eta Legeak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo Alkate-Dekretua luzatzea erabaki dut:

Oñatiko Zubikoa Kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuen kontratazio publikoaren behin behineko esleipena:

2014ko ekainaren 26ko Udal Plenoaren erabakiz "Oñatiko Zubikoa Kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuen" kontratazio publikoa egitea erabaki zen, deialdia eta baldintza zerrenda onartuz. Baldintza zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Oñatiko Udaleko Kontratazio Web orrian 2014ko uztailaren 4an argitara eman zen.

Uztailaren 5etik uztailaren 21era bitartean jendeagirian egon den epean enpresa bakar baten proposamena jaso da: Egoitek S.L

2014ko uztailaren 24an burutu zen B kartazalaren irekiera publikoa (esleitzeko irizpideak). Bestalde, uztailaren 30ean burutu da eskaintza ekonomikoaren irekiera publikoa.

Hau dela eta, uztailaren 30ean Kontratazioa mahaia bildu ondoren hona hemen enpresari emandako puntuazioa:

Enpresak/ Enpresa	Txosten teknikoa	Hobekuntzak	Proposamen ekonomikoa	Guztira
Egoitek	22,5	12,25	60	94,75

Aurreko puntuazioak ikusiz eta Kontratazio Mahaiak egindako proposamena kontuan hartuz, Alkatea naizen aldetik erabaki dut:

Lehena: Egoitek S.Lri jakinaraztea, 10 laneguneko epea izango duela honako dokumentazioa aurkezteko (Baldintza Zerrendaren 19. artikulua), epe horretan aurkeztuko ez balu behin betiko esleipena ez litzatekeela bere alde egingo adieraziz:

- Ogasunak eta Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiriak, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen dutenak.
- 9.975 euroko behin betiko fidantza aurkeztu behar du.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren alta
- Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzeari buruzko egiaztatzea

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin 2014ko irailaren 1ean

ALKATEAK

Mikel Biain Berraondo